

ELKARRIZKETA

GORKA LÓPEZ DE MUÑAIN

“Heriotzarekin gero eta harreman
gatazkatsuagoa dugu”



Pedro Velaz de Guevararen hilobia. San Mígel
Goiaingeruaren parroikia. Oñati
Plazaola argazkia

**Garezurrak,
hezurdurak,
deskonposizioan
dauden gorpuak...
Erdi Aroan, estetika
makabro bat eliza
eta kaperak
betetzen hasi zen.
Bere azken
liburuan, Gorka
López de Munain
historialariak
tradizio horren
muinera eramaten
gaitu bere
adibiderik
apartekoenetako
baten bidez: Pedro
Vélaz de
Guevararen
hilobia.**

Heriotzarekiko beldurra gizakiaren ondoan ibili da beti, saihestezina den itzal baten moduan. Gure finitudearen kontzientziak sortzen digun antsietatea uxatzeko, antzinatek erabili izan dugu tresna oso indartsu bat: irudiak. España macabra. La cultura de la muerte entre el Medievo y la Modernidad liburuak gizakiok heriotzari aurre egiteko erabili ditugun estrategia desberdinak aztertzen ditu, Erdi Aroko eta Aro Modernoko arte-lanen hautaketa zabal baten bidez.

Bere egileek, Gorka López de Munain historialariak eta Miriam Beltrán Valiente kriminologoak, ilunaren detektibe gisa sartu dira komentutan, museoetan, hilerrietan eta klaustroetan, historian zehar santuen martirioei eskainitako margolan eta eskulturetan ageri diren zaurien, erraien eta odolaren atzean zer dagoen azaltzeko.

Gorka López de Munain (Gasteiz, 1984) Artearen Historiako doktorea da, eta irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatea-n eta UNED-en; halaber, ikertzailea da Buenos Aireseko Unibertsitatea-ko Antropologia Bisualaren arloan. Heriotzaren kultura bisualari buruzko bere ikerketaz gain, Euskal Herriko Erdi Aroko artean aditua da.

Zubixa Aldizkaria., Bere lana artearen historiaren —doktorea baita arlo horretan— eta historia kulturalaren artean kokatzen da. Zer ematen dio ikuspegi hibrido horrek artearen historia tradizionalago baten aldean? Kultura bisualaren ikuspuntua sartzan dugunean, artearen historia tradizionalak duen begirada hierarkikoa hautsi egiten da. Honen ondorioz, iraganaren ezagutzarako aurretik baztertu egin diren irudiak gehitzen dira, analisi-fokua handitzen eta aberasten.

Z A. Zure ikerketetan, irudiak ez dira soilik objektu estetikoak, baizik eta agente kulturalak. Nola aldatzen du horrek artelan bat interpretatzeko modua? Irudiek balio oso ezberdinak izan ditzakete. Haien artean, balio artistikoa garrantzitsua izan daiteke, baina ez da bakarria ezta eksklusiboa ere. Iragana aztertzeke obra artistikoek informazio asko eman dezakete, baina ezagutza benetan sakona lortzeko beharrezkoak dira beste materialak eta beste begirada zeharkakoagoak.

Z A. Zure lanaren zati handi bat Euskal Herriko ondarean oinarritu da. Zer berezitasun azpimarratuko zenituzke hemen arteak eta kultura bisualak dituzten ezaugarriei dagokienez? Ba al dago berezitasunik Oñatin?

Zaila da tokiko berezitasunak ezartzea, iraganean dena elkarri lotuta baitzegoen. Nolanahi ere, beti deigarria egin zait Euskal Herriak iraganarekin eta tradizioarekin izan duen harreman estua. Beste leku batzuetan modak eta estiloak aldatzen zirenean, hemen denbora luzez mantentzen ziren.

Z A. Artearen, boterearen eta errepresentazioaren arteko harremana landu duzu. Uste duzu dimentsio hori funtsezkoa dela gaur egungo artea ulertzeko ere? Adibide izan al daitezke, zure azken liburuan aipatzen dituzun bezala, Oñatiko kondearen hilobia edo Nafarroako Xabierko familiaren sepulkroa?

Artelanak, irudiak oro har, boterearen baliabide erabilgarri eta beharrezkoak izan dira beti. Irudiek imaginarioak eraikitzen dituzte, baina ez dira esparru itxi batean geratzen: gizarte osoari bideratuta daude, imaginario horri zentzua emateko. Horren adibide ona da Pedro Velaz de Guevararen hilobia. Memoria sortzeko pentsatutako obra da, bizilagunen artean bere presentzia zabaltzeko. Ezer ez da honetarako irudiak baino eraginkorragoa.

Z A. Arabako erromanikoa izan da zure ikerketen ardatzetako bat. Zerk egiten du bereziki interesgarri penintsulako testuinguruan? Nola definituko zenuke euskal erromanikoa?

Arabako erromanikoa berezia da hainbat arrazoiengatik. Botere-talde txikietan oso zatituta zegoen gizartearen isla fidela da. Gizarte-talde hauek kultura bisuala propioa sortu zuten, oso sustrai zaharrak dituen, eta eraiki zituzten elizetan islatzen saiatu ziren. Beraz, arte erromanikoa gure iragana ezagutzeko funtsezko iturria da. Gainera, adibide asko ailegatu dira gure egunetara, eta horrek ezagutza horretan asko sakontzea ahalbidetzen du.

San Prudentzioko
basilika erromanikoaren kapitela
(Armentia) Gasteiz

Z A. Máscaras mortuorias liburuan irudiaren eta heriotzaren arteko harremana ikuspegi zabal batetik aztertzen zenuen. Nola sortu zen interes hori eta zer erakutsi zizun lan horrek aurpegiaren paperari buruz mendebaldeko kulturen?

Beti interesatu izan zait irudien boterea aztertzea, eta berehala konturatu nintzen heriotzan ikusten zela argien botere hori. Heriotzaren inguruan harreman oso estuak sortzen dira irudiekin. Horregatik, hileta-maskarei buruzko doktoretesia egitea erabaki nuen, erretratuen benetako izaera ulertzeko asmoz. Azkenean, eboluzio hori aztertuz, lortu nuen ulertzea aurpegiaren garrantzia.

Z A. Liburu honetan "Oñatiko topaketa" aipatzen duzu, Pedro Vélaz de Guevara Oñatiko kondearen hilobiari erreferentzia eginez. Zer interes zuen kasu horrek liburuaren barruan?

Hilobi hau penintsulako Erdi Aro osoko "Hiru bizidunen eta hiru hildakoen arteko topaketa"-ren adibiderik onenetako bat da. Tradizio hau Frantzian sortu zen heriotzarekiko gogoeta bat eragiteko. Kandairaren arabera,



nobleziako gazte batzuek eskeleto batzuk aurkitzen dituzte mendian, eta elkarriketa bat izaten dute: "zaretena, izan ginen; garena, izango zarete". Ideia honek antzinarotik dator, baina Erdi Aroan bultzada berri bat izango du, batez ere XIV. mendetik aurrera.

Z A. España macabra lanean, Miriam Beltránek batera idatzitako zure azken liburuan, heriotzaren kultura bisuala aztertzen duzu tradizio hispanikoan. Zer interesatzen zitzaizun bereziki iruditeria horretan, eta zer dio gure historia kulturalari buruz? Nola alderatzen duzu Erdi Aroko heriotzaren kultura gaur egungoarekin?

Batez ere heriotzaren kultura esparru kronologiko zabal batean aztertzea interesatzen zitzaidan. Nahi nuen ikustea zer mantentzen zen, zer galtzen zen, zer eraldatzen zen... Erdi Aroan eta Aro Modernoan dago gure gizartearen oinarria, baina oso aldatuta iritsi zaigu. XVIII. mendean garai berri bat hasiko da, tradizio zaharrak baztertuz heriotza hotz eta urrunagoarekiko harremanaren mesedetan. Eta horrela gaude gaur egun, heriotzarekin gero eta harreman gatazkatsuagoarekin.

Z A. Halaber, sepulkroa Sancti Spiritu kaperatik (egungo Rosario kaperak) kriptara eramateaz, multzoaren zati baten suntsipenaz eta lekualdatzearen ondoren egindako muntaketa-aldaketek hitz egiten duzu. Oñatiko parrokiako erreforma hori oso polemikoa izan zen. Nola baloratuko zenuke?

Pena da lekualdaketa hori kontu handiagorik ez egitea, pieza asko apurtu zirelako eta programa ikonografikoa desitxuratu zelako. Baina beste leku askotan, mota honetako hilobiak erabat erretiratu zirenez, poztu gaitezke Oñatin behintzat kontserbatu egin zelako.

Z A. Kondearen kantigak eta deziresak ere aipatzen dituzu. Benetan hain oparoa izan al zen kulturalari? Nola azal daiteke hain ezezagunak izatea? Euskaraz hitz egiten al zuen eta inoiz idatzi al zuen hizkuntza horretan?

Oso gizon ikasia zen kondea, gorte-giroan hezia. Ohikoa zen goikarguak betetzen zituzten pertsonek prestakuntza eta idazketa-gustu hori izatea.

Pedro Velaz de Guevararen hilobia. San Migel Goiaingeruaren parrokia. Oñati. Behean,
Nafarroako Xabierko familiaren sepulkroa



Hala ere, bere garaian poesia horien idazketa ez zen hain ohikoa. Izan ere, "azken trobadorea" deitu izan zaio. Bere testu guztiak gaztelaniaz idatzita daude, poema mota hauen ohiko hizkuntza zelako, baina zalantzarik gabe euskaraz ere hitz egingo zuen.

Z A., Xabierko gazteluko dantzari buruz ere hitz egiten duzu. Zer transmititzen dio irudikapen horrek ikusleari?

Dantza hori oso garrantzitsua da. Heriotzaren Dantzen generoa Erdi Aroan sortu zen, eta oso laster zabaldu egin zen Europa osotik. Baina Xabierko gazteluan margotutakoa ez da beste guztiak bezalakoa. Dantzetan, eskeleto batzuk gizarteko estamentu

ezberdinekin dantza egiten dute, errege batetik laborari bateraino. Baina hemen eskeletoak baino ez daude, eta horrek bisitaria dantza horien helburu bihurtzen du.

Z A., Arabari edo Gasteizko San Frantzisko komentua bezalako lanei buruzko zure ikerketetan, memoriaren eta ondare-galeraren inguruko kezka nabaria da.

Oñatin, azkenean, unibertsitatearen zaharberritzea hasi da. Ondo zaintzen ari al gara Euskal Herriko ondare historikoa? Leku bakoitzak bere egoera du, eta zaila da orokortzea. Esan daiteke gero eta erakunde konprometitua-goak ditugula ondarearekiko, hori errealitate bat da.

Oraindik egiteko asko dagoela ere bai. Beraz, nik nahiago dut baikorra izatea eta bide onetik goazela pentsatzea.

Z A., Zer gomendatuko zenioke Artearen Historiarako interesa eta bokazioa duen gazte bati?

Egia esanda, oso zaila egiten zait lanbide politago bat pentsatzea. Esango nioke benetan artea maitatzen badu eta iragana ezagutzeko grina sentitzen badu, ez dezala denbora galdu irteera profesionaletan pentsatzen. Noski hori oso garrantzitsua da, baina mundua hain da aldatokorra, ezinezkoa baita gaur egun 10 urte barru non egongo garen jakitea. Eta zalantzarik gabe, profesional handiak behar izango ditugu humanitateetan. Inoiz baino beharrezkoagoak izango dira.

HERIOTZAREN TRANPA:

HILOBIA ONDO IKUSTEKO GIDA

Duela bi mende baino gehiago egindako akats batek ezkutuan utzi zuen Oñatiko hilobiaren benetako esanahia. Zaldunen eta hezurduren artean, alabastroak mezu kezagarri bezain betierekoa helarazten du: heriotzak denok berdintzen gaituela.



Gaur ikusten duguna ez da Pedro Vélaz de Guevarak eraikitzeko agindu zuena. XVIII. mendearen amaieran desmuntatu egin zuten, eta berriz jartzean inork ez zuen aurrean zuena ulertu: zaldunak hezurduretatik bereizi zituzten eta kutxaren mutur banatan jarri, jatorrian narrazio-sekuentzia bakarra zen eszena bi zatitan banatuz.

Lana egileak pentsatu bezala ikusteko, friso guztiak zeharkatu eta topaketa osoa buruan berreraiki behar da: baso batean aurrera doazen hiru zaldun, bat-batean hiru hezurdurekin topo egiten dutenak, bitartean arrosarioa eskuan duen eremita batek alde batetik begiratzen duelarik.

Orduan bakarrik ulertzen da poeta noble honek —bizimodu lizunaz damututa— betikotasunerako alabastroan zizelkatu zuen mezua: zer zaren, ni izango naiz; zer naizen, zu izango zara.